

ASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA Ikasgia: Bizi Zikloaren Erizaintza II Kodea: 27556	Mota: Erizaintzako Zientziak Eskolen kronograma: 2. lauhilekoa Hizkuntza: Euskara/Gaztelania ECTS kredituak: 6 Kurtsoa: 2.Maila
Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua Klimaterio- eta menopausia-aldian emakumearen baitan izaten diren aldaketak deskribatzea eta analizatzea. Fisiopatologia eta emakumeari eta familiari egin beharreko zainketak identifikatu eta deskribatzea, osasun-arazo ohikoenetan: minbizi ginekologikoa, gernu-ihesa eta abar. Bestalde, irakasgai honek ikaslea bultzatzen du zahartzaroa eta pertsonen etapa horretan behar dituzten zainketak ulertzea, bai autonomia-/independentzia-egoeretan bai ahultasun-egoeretan eta ezintasun- eta mendekotasun-maila guztietan ere.	
Sartzeko eskakizunak/gomendioak Bat ere ez.	

IRAKASLEAK

Tel.

Helbide elektronikoa

Irakasgaiaren arduraduna	Tel.	Helbide elektronikoa
Susana Cariñanos Ayala	945 219003	susana_carinanos@ehu.eus SUSANA.CARINANOSAYALA@osakidetza.eus
Euskarazko lerroko irakaslea Maddalen Corcuera Camino	945 008087	maddalen_corcuera001@ehu.eus MADDALEN.CORCUERACAMINO@osakidetza.eus
Irakasle gonbidatuak Fernando Gómez Busto		

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Pertsonak bizi zikloan dituen aldaketa fisiologikoak, psikologikoak, sozialak eta emozionalak azaltzea.
- G2. Pertsonaren bizi zikloren etapetan egiten diren erizaintza esku-hartzeak justifikatzea.

ZEHARKAKO GAITASUNA

ZG. Komunikazio idatzia: modu argian, ordenatuan eta laburbilduan komunikatzea, arauen (lexikoak, semantikoak, gramatikalak...) arabera idatzi eta egituratutako testu akademikoak eginez.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1: Klimaterio- eta menopausia-aldian emakumearen baitan izaten diren aldaketa fisiologiko, psikologiko, sozial eta emozionalak ezagutu eta deskribatzen ditu.
- IE2: Klimaterio- eta menopausia-aldian emakumeak behar dituen zainketak identifikatzen ditu.
- IE3: Ginekologia-prozesu ohikoenetako fisiopatologia eta emakumeak behar dituen zainketak identifikatu eta deskribatzen ditu.
- IE4: Geriatriaren eta Gerontologiaren kontzeptuzko alderdiak ezagutzen ditu .
- IE5: Zahartzearen teoria nagusien eta egungo ikerketa-lerroen bilakaera zein izan den identifikatzen du.
- IE6: Biztanleriaren aldaketa demografikoak eta aldaketa horien eragin sanitario eta soziala aztertzen ditu.
- IE7: Zahartze-prozesu osasuntsuarekin lotutako aldaketak ezagutzen ditu.
- IE8: Adineko pertsonari arreta eskaintzeko, balorazio geriatriko integralaren beharra argudiatzen du.
- IE9: Zahartze-prozesu patologikoarekin lotutako aldaketak ezagutzen ditu.
- IE10: Mendekotasuna duen pertsonaren ezaugarriak zein diren antzematen du.
- IE11: Adineko pertsonen eta familiaren beharrei aurre egiteko arreta soziosanitarioko zer baliabide den egokiena badaki.
- IE12: Adineko pertsonak eta haren familiak zahartze-prozesuan zer zainketa behar dituzten argudiatzen du.
- IE13: Arau akademikoak betez eta hizkeraren erabilera zuzena eginez idazten du.
- IE14: Informazio-iturriak maneiatzen ditu (datu-baseak).

EDUKIAK

I. UNITATEA: ANTZUTASUNA ETA ERNALEZINTASUNA

- 1.1 Emakumea eta bikotea nola tratatu antzutasun-prozesu batean.

II. UNITATEA: KLIMATERIOA ETA MENOPAUSIA

- 2.1 Klimaterioa eta menopausiaren faseak eta aldaketak.
- 2.2 Ohiko asaldurak. Emakumearen eta familiaren zainketak.

III. UNITATEA: EMAKUMEAREN OSASUN-ARAZO OHIKOENAK

- 3.1 Ziklo genitalaren asaldurak.
- 3.2 Gernu-inkontinentzia duen emakumea.
- 3.3 Bularreko minbizia duen emakumea.
- 3.4 Aparatu genitalean minbizia duen emakumea: umetoki-lepoko, umetokiko eta obulutegietako minbizia duen emakumea.
- 3.5 Sexu-/genital-transmisiozko infekzioak.

3.6 Beste arazo batzuk: endometriosisa eta tumore onberak.

Tailerra: Pelbis-zorua.

IV. UNITATEA: ZAHARTZEA

- 4.1 Geriatriaren eta Gerontologiaren alderdi orokorrak. Geriatria, gerontologia eta zahartzearen kontzeptuak. Adin geriatrikoak. Erizaintza geriatrikoa.
- 4.2 Zahartzeari buruzko teoria nagusiak. Ikerkuntzaren eboluzioa eta egungo lerroak.
- 4.3 Zahartzearen demografia. Eboluzio demografikoa, lotutako faktoreak eta sortzen dituen arazo nagusiak.
- 4.4 Zahartze osasuntsua. Zahartze-prozesuarekin lotutako aldaketak. Zahar osasuntsuaren kontzeptua. Beharren balorazioa. Erizaintzako zainketak.

Tailerra/Mintegia: Tailerren eta mintegien xehetasunak ikaslearen koadernoan daude.

V. UNITATEA: GAIXOTASUNA ADINEKOETAN

- 5.1 Gaixotasunaren ezaugarriak adinekoen kasuan.
- 5.2 Balorazio geriatriko integrala. Balorazio geriatrikoa egiteko eskala erabilienak. Zaintzailearen balorazioa.
- 5.3 Mendekotasuna eta haren zeinu nagusiak.
- 5.4 Sindrome geriatrikoak. Erorikoak. Mugikortasunaren asaldurak. Malnutrizioa. Ultzerak. Inkontinentzia. Polifarmazia.
- 5.5 Paziante geriatrikoa. Definizioa eta ezaugarri nagusiak. Narriadura kognitiboa. Alzheimerra eta Parkinson-en gaixotasuna. Delirioa. Depresioa. Antsietatea. Dementziak.
- 5.6 Errehabilitazioa.
- 5.7 Adinekoen kontrako tratu txarrak.
- 5.8 Adinekoek, erizaintzaren ikuspegitik, zer zainketa jaso ditzaketzen hiltzeko prozesuan.

Tailerra/Mintegia: Tailerren eta mintegien xehetasunak ikaslearen koadernoan daude.

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	IKASGELAKO-PRAKTIKA ORDUAK	TAILER-ORDUAK
1	Maddalen Corcuera Camino	2	0	0	0
2	Maddalen Corcuera Camino	4	0	0	0
3	Maddalen Corcuera Camino	6	0	0	2
4	Susana Cariñanos Ayala	8	2	6	0
5	Susana Cariñanos Ayala	26	6	12	1
GUZTIRA		46	8	18	3

METODOLOGIA

Planteatutako gaitasunak eskuratzeko, metodología aktiboak sustatuko dira irakasgaiari zehar ondorengo irakaskuntza motak barneratuz:

- **Klase magistralak:** eskola teorikoak, talde handitan, eduki teorikoak azaltzeko.

- **Mintegiak:** irakasleak gidatutako dinamikak; hark ikasketa esanguratsua eta berdinen arteko elkarlana sustatuko ditu. Mintegietan irakaslearen funtzioa izango da entzutea, orientatzea, zalantzak argitzea, jarduera nola egin erakustea eta ikasleen ebaluazio jarraitua burutzea.
- **Ikasgelako praktikak:** eskola magistraletako teoriaren alderdi praktikoak osatzen dituen irakaskuntza-mota da. Egokia da asteko lanak banatzeko eta lan-taldeei jarraibide batzuk emateko lanak egiteko moduari buruz.
- **Laborategiko praktikak/Tailerra:** irakaskuntza mota honetan ikasleek entseguak egiten dituzte eta unibertsitatearen materialarekin esperimentuak egiten dituzte irakasleen laguntzarekin; haiek zalantza posibleak ebatziko dizkiete eta zaintza-funtzioa egingo dute.

LAN PRESENTZIALA (75 ORDU)			
Klase magistrala	Ikasgelako aula	Mintegia	Laborategiko praktikak / Tailerra
46	18	8	3

LAN EZ-PRESENTZIALA (75 ORDU)		
Ikasketa	Bakarkako lana	Talde-lana
50	25	0

GUZTIRA	
ECTS	6
HORAS	150

EBALUAZIO-SISTEMAK

Irakasgaia ebaluatzeko, ebaluazio jarraitua eta amaierako ebaluazioa erabiliko dira. Batean zein bestean, gaitasun bakoitzaren balioak hauek izango dira:

- 1. Gaitasuna:%40
- 2. Gaitasuna:%50
- Zeharkako Gaitasuna:%10

Ikasgai hau gainditzeko beharrezkoa izango da bi ebaluazio-sistemetako edozeinetan (jarraituan eta amaierakoan) gaitasun bakoitza beren balioaren % 50arekin edo gehiagorekin gainditzea, edo bestela, ikasleak ez du gaindituko.

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Ebaluazio jarraituaren modalitateari atxikiz gero, irakasgaiko klase orduen %35era bertaratu beharko du ikasleak. Ebaluazio jarraituan, ebaluazio-proba eta -jarduera multzo bat egongo da, ikasle bakoitzak prestakuntza-aldian izan duen aurrerapena baloratu ahal izateko. Ebaluazio jarraituan, ebaluazio-proba hauek egongo dira:

- GARATU BEHARREZKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA): %65
- MINTEGIAK EGITEA: %25
- ZEHARKAKO GAITASUNA (ENTREGAGAIA): %10

1. *Taulan* laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, metodologiaren eta ebaluazio-proben arteko erlazioa:

1. *Taula*. Ebaluazio jarraituko ohiko deialdiko ebaluazioa.

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	METODOLOGIA	EBALUAZIO PROBA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1, G2	IE1-IE3	Klase magistralak	Garatu beharrezko idatzizko proba Tailerra (zoru-pelbikoa)	%20
		Laborategiko praktikak / Tailerrak		
	IE4-IE12	Klase magistralak	Garatu beharrezko idatzizko proba	%45
		Mintegiak	Entregagaiak Test galdetegia Jarduera kolaboratiboa Gidatutako Unibertsitate Debatea Tailerra (mugikortasuna)	%25
	Laborategiko praktikak /Tailerrak			
ZG	IE12-IE14	-	Entregagaia	%10

- **Garatu beharrezko idatzizko proba (azterketa):** proba hau UPV/EHUK ezarritako azterketen epealdi ofizialean egingo da eta irakasgaiaren kalifikazio osoaren %65 balioko du.
- **Tailerrak:** tailerrak 16. eta 23. aste akademikoen artean egingo dira.
- **Mintegiak:** Mintegiak 16. eta 23. aste akademikoen artean egingo dira eta irakasgaiaren kalifikazio osoaren %25 balioko dute. Nahitaezkoa da mintegietara joatea. Mintegietara joaten ez diren ikasleei atal honen amaieran adierazitako alderdiak aplikatuko zaizkie. Aipatutako mintegiak egiteko datak, ebaluazio jarraituaren kasuan, ikaslearen koadernoan zehaztuko dira. Koaderno hori ikasleen eskura egongo da eGelan, irakasgaia ematen den lauhilekoaren hasieratik.

Ikasgaiaren kalifikazioa lortzeko ebaluazio-proba bakoitzaren kalifikazioak batuko dira (*1. Taulan* adierazita dauden bezala). Ikasgai hau ebaluazio jarraituko sisteman gainditzeko, gaitasun bakoitza eta ebaluazio-proba bakoitza gainditu beharko da (mintegiak, tailerrak eta idatzizko probak) gutxienez beren balioaren %50arekin (ikusi 1. taula).

Ebaluazio jarraitua aukeratzen duten ikasleek honako alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan:

1. Zoru-pelbikoaren tailerrera bertaratzea derrigorrezkoa da.
2. Mintegi edo tailer batera bertaratu ez bada eta justifikatu badu (*) edo hura gainditu ez badu, errekuperatzeko aukera izango du. Errekuperazioa azterketen epealdi ofizialean egingo da.
3. Ikasle batek tailer, mintegi edo ikasgelako praktika bat baino gehiago gainditzen ez badu edo haietara joaten ez bada (justifikatuta egon edo ez), amaierako ebaluazio sistemaren bidez ebaluatuko da, ohiko eta ezohiko deialdietan.
4. Justifikatu gabeko ez-bertaratzeak amaierako ebaluazio-sistemara igarotzea ekarriko dute.

5. Zeharkako gaitasunaren (ZG) ebaluazioa gainditzen ez duen edo aurkezten ez den ikasleari ez-gai jarriko zaio ohiko deialdian.

(*) Mintegi edo tailer batera ez joateko arrazoiak hauek dira, ziurtagiria aurkeztua: gaixotasuna, bigarren mailara arteko odol-ahaidetasuneko senitartekoen gaixotasuna edo heriotza eta nahitaezko eginbeharrak betetzea, baldin eta horiek mintegiaren ordutegiz kanpo egin ezin badira edo ezinbesteko arrazoiak direla-eta.

Azterketara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du.

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Edonola ere, ikasleek amaierako ebaluazioaren sistemaren bidez ebaluatuak izateko eskubidea izango dute, ebaluazio jarraituaren sisteman parte hartu badute ere. Kasu horretan, ikasleak idatziz ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diola jakinarazi beharko dio. Horretarako 9 asteko epea izango du, lauhilekoa hasten den egunetik kontatzen hasita (martxoaren 13ko 2017/1311 EHAren 8. artikulua).

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Amaierako ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da, eta ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzako da. Behar bezala justifikatutako arrazoiak direla-eta, ebaluazio-sistema jarraituan parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra egingo dute, eta irakasgaiaren nota osoaren %100 balioko du. Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, 2024/2025 ikasturtean irakasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Amaierako ebaluazioan, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- GARATU BEHARREZKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA): %100

Amaierako ebaluazio sistemaren barruan ebaluatutako ikasleek ikasgaiaren kalifikazioa 2. taulan jasotako irizpideei jarraituz lortuko dute.

2. Taula. Amaierako ebaluazioko ohiko deialdiko ebaluazioa.

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	METODOLOGIA	EBALUAZIO PROBA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1, G2	IE1-IE3	Klase magistralak	Garatu beharrezko idatzizko proba	%20
		Laborategiko praktikak / Tailerrak		
G1, G2	IE4-IE12	Klase magistralak	Garatu beharrezko idatzizko proba	%70
		Mintegiak		
		Laborategiko praktikak / Tailerrak		
ZG	IE12-IE14	-	Garatu beharrezko idatzizko proba	%10

Sistema honek ikasitakoaren emaitzak ebaluazio-proba baten bidez ebaluatzeko aukera jasotzen du. Ebaluazio-probak idatzizko 3 proba hartzen ditu barne eta azterketen epealdi ofizialean egingo da (martxoaren 13ko 2017/1311 EHAAn jasotako 8. artikuluan). Ikasgai hau gainditzeko beharrezkoa izango da amaierako ebaluazio-sisteman gaitasun bakoitza eta idatzizko proba bakoitza beren balioaren %50arekin edo gehiagorekin gainditzea (ikus 2. taula), edo bestela, ikasleak ez du gaindituko.

Garatu beharrezko idatzizko probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ohiko deialdia gainditu ez duten edo aurkeztu ez diren ikasleek ezohiko deialdia dute ikasgaia gainditzeko. Ebaluazioa ezohiko deialdian UPV/EHUK ezarritako azterketa-aldi ofizialean egingo da. Garatu beharrezko idatzizko probara ez aurkezteak deialdi honetan «Ez aurkeztua» kalifikazioa dakar.

Ezohiko deialdiko ikasleak ohiko deialdian aukeratu duten ebaluazio-sistema beraren bidez ebaluatuko dira. Ikasleek kontuan izan behar dute:

- Ebaluazio jarraituko sistemako tailer, mintegi eta ikasgelako-praktiketan lortutako emaitza positiboak (hau da, ebaluazio-proba batean %50etik gorako emaitza lortzea) irakaskuntza-gida honi dagokion ikasturtean zehar gordeko dira.
- Ohiko deialdian garatu beharrezko idatzizko proba bakarra ez gainditzeak edo tailer/mintegi/ikasgelako praktika bateko berreskurapen ariketa ez gainditzeak esan nahi du ikasleak ikaskuntzaren gaitasun eta emaitza guztiak ebaluatzen dituzten garatu beharrezko idatzizko proba guztiak errepikatu behar dituela ezohiko deialdian (ikus 1. edo 2. taula, ikasleak aukeratu duen ebaluazio-sistemaren arabera).

TAILERRETARA JOATEKO NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Uniformea eta arauzko eskalapoiak.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografía

- * Calenti M. Gerontología y Geriatría. Valoración e Intervención. Madrid: Editorial Médica Panamericana; 2010.
- * Eliopoulos C. Enfermería Gerontológica. 8ª ed. Barcelona: Wolters Kluwer Health; 2013.
- * García, FP. Soldevilla, JJ, Torra i Bou, JE. Atención integral de las heridas crónicas (2ªed). Fundación Sergio Juan Jordán para la Investigación y el Estudio de las Heridas Crónicas. Grupo Nacional para el Estudio y Asesoramiento en Úlceras por Presión y Heridas Crónicas. Logroño; 2016.
- * González Merlo. Ginecología. 10ª edición. Madrid: Elsevier; 2020.
- * Perri, S., Cashion K., Lowdermilk D., Maternidad y salud de la mujer. Barcelona: Elsevier Masson; 2008.
- * Seguranyes Guillot G., Enfermería Maternal, Master de Enfermería. Barcelona: Masson; 2000.
- * Torrens Sigalés RM, Martínez Bueno C., Enfermería de la Mujer I y II. Madrid: Ediciones D.A.E. Editorial; 2017.

Sakontzeko bibliografia

- * Abellán-García A, Aceituno Nieto P, Pérez Díaz J, Ramiro Fariñas D, Ayala García A, Pujol Rodríguez R. Un perfil de las personas mayores en España, 2019. Indicadores estadísticos básicos. [Internet]. Madrid; 2019. Disponible en: <http://envejecimiento.csic.es/documentos/documentos/enred-indicadoresbasicos2019.pdf>
- * Almodóvar Pérez F, García-Moya Sánchez R. Atención especializada al anciano. Recursos específicos de atención sociosanitaria en ancianos. Vigo: Ideaspropias Editorial. 2009.
- * Carretero Orcoyen M, Castedo Martínez O, Fuertes Rocañín JC, Ruiz Jiménez J. Enfermería Geriátrica. Aspectos médico-legales. Madrid: Ediciones Díaz de Santos; 2015
- * Cribado, diagnóstico y seguimiento de la patología de mama. Departamento de Salud. Osakidetza. Mayo 2021.
- * García López MV, García-Moya Sánchez R, González Batres M, Poveda Cordero M, Turón Monge P. Cuidados básicos de geriatría. Atención a las necesidades psicosociales en el anciano. Vigo: Ideas propias Editorial. 2009.
- * Guía de práctica clínica sobre el abordaje de síntomas vasomotores y vaginales asociados a la menopausia y la postmenopausia. Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. 2017.
- * Mayán Santos JM. Enfermería en Cuidados Sociosanitarios. Serie Cuidados Avanzados. Madrid: Ediciones DAE; 2005.
- * Programa de cribado cáncer de cérvix. Departamento de Salud. Osakidetza. Julio 2020.
- * Programa formativo de la especialidad Obstétrico-Ginecológica (Matrona), aprobada por Orden SAS/1349/2009, de 6 de mayo. Ministerio de sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. 2014. Volúmenes 6,7 y 8.
- * Pujol Rodríguez R, Abellán García A, Pérez Díaz J, Ramiro Fariñas D. La medición del envejecimiento. [Internet] Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas; 2014. Disponible en: <http://envejecimiento.csic.es/documentos/documentos/enred-medicion-envejecimiento.pdf>
- * Valle Vicente M. Coordinadora. Manual de enfermería geriátrica. Madrid: CTO Editorial, S.L.; 2012.

Interneteko helbideak

- * www.seegg.org (Geriatrico eta Gerontologiako Erizaintzako Espainiako Elkarteak)
- * www.segg.es (Geriatrico eta Gerontologiako Espainiako Elkarteak)
- * www.federacion-matronas.org
- * www.sego.es

OHARRAK

Ikasturtearen hasieran, ikasgaiarekin lotutako dokumentazioa eGelan jarriko da ikasleen eskura. 2018ko maiatzaren 24ko UPV/EHUko Graduko Batzordeko akordioaren arabera, irakasgai hori gainditzea aurrebaldintza da 4. ikasturteko Practiumetan matrikulatzeko.

TUTORETZAK

Ikasgaiaren irakasleekin tutoretzak izateko eskabideak posta elektronikoko bidez izapidetu beharko dira dagokion irakaslearen bidez. Tutoretzak ez dira eskola presentzialetara joan ez izana ordezkatzeko modu bat, eta irakaskuntzan laguntzeko tutoretzen prozeduraren bidez arautuko dira. Prozedura hori EUEko web orrian dago eskuragarri.

PLAGIOEN AURREKO ERANTZUNA

Ebaluazio jarraituan nahiz amaierako ebaluazioko sisteman, ebaluazio-proba edo jardueraren batean plagio bat identifikatzen bada, 0 puntuko kalifikazioa jasoko da plagioa detektatu den deialdian.